



Iruñean izan den emakume baten hilketa matxista salatzen dugu

Pasaia Udalak salatu nahi du atzo (igandea) Iruñean (Nafarroa) izan zen emakume baten hilketa matxista. Senideei zein gertukoei elkartasuna adierazteaz gain, hilketa salatzeko mugimendu feministak deitutako mobilizazioekin bat egiten du udalak.

2023an indarkeria matxistak Euskal Herrian utzitako laugarren biktima da. 2003tik, 121 emakume eta 11 haur hil ditu bortxa matxistak.

Gertakari hori dela-eta, Pasaia Udaketik publikoki eta aho batez adierazi nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten dugula. Horrelako gertaerak ez ditugu gure gizartean onartzen, eta erakunde, elkarte eta herritarrok lanean jarraituko dugu, emakumeok indarkeria matxistarik gabe bizi gaitezen.

Hori horrela, mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu:

- **Antxo**, uztailak 3, 19:00, Biteri plaza
- **Trintxerpe**, uztailak 3, 19:30, Gernika plaza

Emakumeen aurkako indarkeria matxista gehiagorik ez!

Denunciamos el asesinato machista de una mujer en Pamplona

El Ayuntamiento de Pasaia quiere denunciar el asesinato machista de una mujer ayer domingo en Pamplona (Navarra). Además de mostrar su solidaridad a familiares y allegados, el consistorio se suma a las movilizaciones promovidas por el movimiento feminista para denunciar el asesinato.

Se trata de la cuarta víctima de violencia machista en Euskal Herria en 2023. Desde 2003, 121 mujeres y 11 niños han sido asesinados por violencia machista.

Ante este hecho, desde el Ayuntamiento de Pasaia queremos mostrar públicamente y de manera unánime nuestro rechazo a la violencia contra las mujeres. Este tipo de hechos no tienen cabida en nuestra sociedad y, por tanto, debemos seguir trabajando, tanto desde las instituciones y movimientos asociativos, como desde la ciudadanía, para que las mujeres podamos vivir libres de violencia machista.

Por todo ello, realizamos un llamamiento para participar en las movilizaciones promovidas por el movimiento feminista:

- **Antxo**, 3 de julio, 19.00, plaza Biteri
- **Trintxerpe**, 3 de julio, 19.30, plaza Gernika

¡No más violencia machista contra las mujeres!

2023-07-03